



IK4ko zentroek 120 ikertzaile berri kontratatuko dituzte aurten

(Eibar, 2016ko maiatza).- IK4 Aliantza Teknologikoa osatzen duten zentroek 120 langile hartuko dituzte aurten, beren lantaldea sendotzeko. Apustu horrekin, teknologia berritzaileak garatzeko gaitasunak handitu nahi dituzte, eta transferentzia teknologikoko proiektuetan beren bezeroen beharrei erantzun nahi diete.

Ikasketak amaitu berriak nahiz esperientzia dutenak eskatzen dituzte zentroek, eta enpresentzako transferentzia teknologikoko proiektuetan eta ikerketa teknologikoko Europako proiektuetan parte hartuko dute, arduradun edo kolaboratzaile gisa. Doktoretza-tesia IK4ko zentro teknologikoetako batean egin nahi duten pertsonak ere nahi dituzte.

Ingeniaritza hauetako master-mailako espezialitateak dira zentroi gehien interesatzen zaizkienak: Industrialak, Automatika, Mekanika, Elektronika, Informatika, Telekomunikazioak, Materialak eta Kimika. Horrez gain, baita Zientzia Fisiketako ere. Edonola ere, Aliantzak ezinbestekotzat jotzen du ikertzeko bokazioa izatea, lantaldean eta proiektua lan egin nahi izatea eta ingelesa menderatzea.

“Kontratazio-kanpaina honek erakusten du Aliantzako zentroek zer konpromiso duten Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialarekin, lagunduko baitute unibertsitateetatik ateratzen den talentua Euskadin mantentzen eta trebatzen, eta, aldi berean, enpresei lehiakorrakoak izaten, zerbitzu gero eta hobeak eskainiz”, adierazi du José Miguel Erdozain IK4ko zuzendari nagusiak.

“Aliantzako zentroetan lanean hasten direnek etorkizuneko teknologiekin lan egin ahal izango dute, dagozkien eremuetan teknologiaren abangoardian dauden erakundeetan eta enpresen, unibertsitateen eta erakundeen aintzatespena dutenetan”, gehitu du.

Gaur egun, IK4 osatzen duten bederatzizko zentro teknologikoetan guztira 1.274 langile daude, eta kualifikazio altukoak: % 28 baino gehiago doktoreak dira.

Aliantzako zentroek, gainera, talentu-harrobi gisa jarduten dute, eta teknologoak oso gaitasun espezializatuak eskuratuz doaz horrelako profilak behar dituzten enpresetara jauzia eman aurretik. Iaz, 67 lagun transferitu ziren Aliantzako zentroetatik EAEko enpresa-sarera.

Lan-eskaintza batzuk dagoeneko eskura daude zentro teknologikoetako webguneetan.